

## **HARREMANAK**

Gure enpresak bezeroarekin edukiko duen harremana automatizatua izango da aplikazio baten bidez izango delako erlazioa. Erabiltzaileak gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat eta posta elektronikoa bat jarriko dugu. Gurekin eguneko edozein momentutan jarri ahalko dute harremanetan. Beraz, bezeroek galderarik edo dudarik izanez gero, gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute. Honez gain, aplikazioan jendeak asko galdetzen dituen galdera orokorren erantzunak eskuragarri edukiko dituzte.

Anuntziatzaileekin edukiko dugun harremana, berriz, gertuagokoa izango da. Harreman estua eta pertsonalagoa edukitzea saiatuko gara publizitatea egingo diegun enpresen helburuak eta gure helburuak lortzeko. Hauekin hasiera batean aurrez aurreko harremana izango dugu gure produktua aurkezteko eta harremanak estutzeko. Hortik aurrera etengabe arituko gara telefono bidez kontaktatzen. Adibidez, ekitaldi edo egun bereziak daudenean, hala nola, “Halloween” eta “Black Friday”, elkarri eskaintza bereziak egingo dizkiogu.

**Naroa Etxebeste**  
**Beñat Rios**  
**Asier Alkorta**  
**Martxel Parrondo**  
**Oihane Elizegi**

